

BERRIGARA

7. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1997, otsailak 14



Udaltzainak Herriaren zaintzaileak



San Andres auzoa, 8
ARRASATE
T. 79 50 12-79 59 99
F. 79 64 11

OTSAILAREN 14tik 24ra
AUTOMOBILAREN AZOKA
Auto berriak (0 km),
erdiberriak eta bigarren eskukoak

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

MATRIKULA EGITEKO:

Otsailaren 17tik 28ra arte

Goizez: 8.30-13.00 Arratsaldez: 15.00-18.00

BATXILERGOA ETA U.B.I.

DERRIGORREZKO 2. HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

HAUR HEZKUNTZA

2 urtetik 18ra ikastetxe berean



ARANZADI

IKASTOLA

San Martin Plaza, 4 Tl. 76 26 76 - 76 56 76



BERRIGARA JAUREGIA
480570 Bergara
T: 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

BERGARA Elkartea.

Zuzendaria:

Agustín Azkarate

Erredakzioa:

Agustín Mendibil

Agustín Elkoroberezibar

Maketazioa:

Agustín Iturbe

Publizitatea:

Agustín Romero

Argipidetzak:

Agustín Elortza

Besten zuzenketak:

Agustín Plazaola

Agustín Laskurain

Agustín Labaien

Erredakzio kontseilua:

Agustín Elortza

Agustín Angel Elkoroberezibar

Agustín Labaien

Komikiak:

Agustín Rodríguez

Agustín Ortega & Jon Alvarez

Agustín Ugaldé

Agustín Azkarate

Abaketa:

Agustín Xangorri taldea

Orada:

Agustín ale.

Agirimategia:

Agustín Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Age gordailua:

Agustín 50/91

ISSN:

Agustín 6599

BERRIGARAK ez du bere gain

erosten aldizkarian adierazitako

eramen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura
sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ARANTZAZU OREGI

Udal Artxibategiko arduraduna

- Noiz aurkeztuko da "Union Cerrajera. Ahozko iturburuak" izeneko proiektua?

- Lana amaituta dago eta espero dugu hil honen bukaeran egitea aurkeztepena. Eli Arrieta proiektuaren egileak 14 lagun elkarrizketatu ditu eta elkarrizketa horiei esker Zerrajerako historia hobeto ezagutzeko aukera izango dugu: lan prozesuak zelakoak ziren, lan munduko arazoak etabar. Ikuspuntu orokorra eman nahi izan dugu: lan diferentetan egon den jendea elkarrizketatu da laneko arlo ezberdinak aztertzeko eta, bestalde, eguneroko kontuak ere jaso nahi izan dira. Elkarrizketa guztiak ordu bete ingurukoak dira (gehienak euskaraz egin dira)



eta interesatuek material hori kontsultatzeko aukera izango dute.

- Proiektuarekin aurkera jarraitzeko asmorik?

- Interesa badugu horrelako material gehiago biltzeko, baina horretarako Udala eta Eusko Ikaskuntzarekin (proiektu honetarako hitzarmena sinatu genuen beraiekin) berba egin behar dugu.

"Hil nonen bukaeran aurkeztuko dugu Zerrajerako ahozko iturburuen proiektua"

I T U R R I O N E T I K

Jarduneko komiki lehiaketaren V. edizioa apirilean deituko da

Jardunek antolatutako komiki lehiaketaren aurtengo edizioa apirilean deituko da. Orain arteko lau edizioen sari banaketa Gabonetan egin ohi izan da baina

Jardunek, ikastetxeetako ordezkariekin berba egin ondoren, lehiaketa zertxobait atzeratzeko erabakia hartu zuen. Dirudenez, Bergarako ikastetxeetako ikasleek nahiago zuten azken hiruhilabetekora arte lehiaketa atzeratzea. Beraz, bosgarren edizioa apirilaren hasiera aldera deituko da eta sari banaketa, berriz, Pazkuen inguruan egiteko asmoa dago. Joan zen urtean lan dexente jaso ziren komiki lehiaketan eta, ohitura den bezala, lan onenekin erakusketa izan zen Po-Polen.

E S A N
D U T E

"San Balentin eguna nahiko komertziala ikusten dut eta horregatik ez dut ospatzen. Ez da niretzat egun berezi bat. Aitaren edo amaren eguna bezalaxe, muntaia bat iruditzen zait maiteminduen eguna. Izan ere, maiteminduta bazaude, nahi duzunean ospatu dezakezu egun hori.

Ez dut ondo gogoratzen San Balentin egunez oparirik egin dudana ez, seguru asko egingo nuen, baina ez naiz oroitzen. Hala ere, ez naiz oso detallista eta San Balentin egunean opari bat jasoz gero ere harritu antzera erantzungo nuke".


EDUARDO
MURUA

Dantzaria
EUSKALDUNON
EGUNKARIA

"Asko gustatzen zait irakurtzea eta idaztea. Aukera izanez gero bizimodua horrela pasatzea gustatuko litzaidake, idazten eta irakurtzen".

XABIER
LARRAÑAGA

Amodiozko gutunen
lehiaketako
irabazlea
ARRATE IRRATIA

**AL CRUZAR EL LIMITE**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astlehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**THE PHANTOM****El hombre enmascarado**

Domeka: 11:30 (Matinala).

**CRASH**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ Eskale bat New Yorkeko ospitale bateko urjentzietan hil ondoren, *Guy Luthan* doktore dotorea (**Hugh Grant**) heriotza horren arrazoiak ikertzen hasiko da, ez baita lehendabiziko kasua. Baina, autopsia egin aurretik, hildakoaren gorpua desagertu eta *Luthanen* galderak erantzunik gabe geratuko dira... medikuen elkarte sekretu batekin topo egin arte. **Gene Hackman** eta **Sarah Jessica Parkerekin**.

▼▼ Komikeko pertsonaian oinarritutako filmea egin du **Simon Wincer** zuzendari iparamerikarrak. Bengalako irlan *Tougandako Kalaberak*, izugarrizko balioa duen altxorra gordetzen da. *Xander Drax* gaizkileak eta bere lagunak altxorra eskuratzeko asmoa daukate baina lehenbizi enmaskaratutako gizonari egin beharko diote aurre...

▼▼ **David Cronenberg** zuzendariak gai ilunak landu izan ditu bere filme askotan (*Zona muerta*, *Inseparables*). Oraingo honetan, arriskua atsegin duen bikote baten (**James Spader** eta **Deborah Unger**) gora-beherak azaltzen dizkigu. Kotxe istripu bat izan ondoren, sexoa eta arriskua nahasten dituzten egoerak errepikatu nahi izango dituzte. **Holly Hunter** eta **Rosanna Arquette**rekin.

Deiak

▼ **Taun-Taunen** "Ubu babel" antzezlanaren bihar larunbata 22:30etan Novedades aretoan.

▼ **Ikus-entzunezkoa.** Amaia Elozegi eta Esther Mugertzaren "Turkiatik Birmaniara bizikletaz" ikus-entzunezkoa Osintxuko ludo-terekin datorren ostiralean, hilak 21, 19:30etan Osintxuko ludotekan.

▼ **Odol ateraldia.** Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten du eguastenean, hilak 19, arratsaldeko 6 t'erdietan Seminarioko lokalean egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

▼ **Rikardo Azkargorta**ren mar-go erakusketa Madrileko La Kabala erakustokian (Conde de Aranda, 10) martxoaren 8ra arte.

Ogia

▼ **Domeka 16:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 14:** Camacho.
- ▼ **Zapatua 15:** Puy.
- ▼ **Domeka 16:** Puy.
- ▼ **Astlehena 17:** Guallar.
- ▼ **Martitza 18:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 19:** Mozos.
- ▼ **Eguena 20:** Camacho.

Kizkur**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

LARREA**TABERNA**

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Eibar-Gasteiz autopista

Leintz-Gatzaga proposamenaren aldekoen erakusketa

Kultur Etxean, Eibar-Gasteiz autopistaren inguruko erakusketa ikusgai izango da gaur hasi eta datorren otsailaren 23ra arte. Leintz-Gatzaga proposamenaren aldeko taldeak antolatutako erakusketan aipatutako autopistak izango lukeen eragina azaldu da panel informatiboak, bideoak edota bertara hurbiltzen diren guztiei banatuko zaizkien triptikoei esker.

Leintz Gatzagako proposamena gure bailarako beharrei erantzungo dien errepide baten alde azaltzen da. Horretarako, Deba bailara barruko eta bailaratik kanporako komunikazioak konpondu eta hobetzeko proiektu baten beharra ikusten du, tartean Bilbo-Durango-Bergara-Beasain-Tolosa-Iruñea korredorea bultzatu behar dela azpimarratzen du. Era berean, Bilbo-Behobia (A-8) autopistaren peajea lehenbailehen liberalizatu behar dela eta gure bailarako behar duen azpiegitura definitzeko eztabaida sozial zabala bultzatu behar dela uste dute Leintz-Gatzagako proposamenaren egileek. Euren hitzetan, "oraingo bidean oinarritu behar da soluzioa,



Autopistari buruzko erakusketa antolatu dute Kultur Etxean Leintz-Gatzaga/Landa proposamenekoek.

egin diren saihezbideak erabiliz, saihezbide horiek berraztertu eta hobetuz, hirugarren karril, errotonda, desdoblamendu eta barretan oinarrituz".

Autopistaren aurka

Kultur Etxeko erakusketan, Leintz Gatzagakoek autopistaren aurka egoteko hainbat arrazoi aipatzen dituzte, besteak beste, bailarako trafikoen be-

harrei ez erantzutea, ingurugiro aldetik autopistak izango duen eragina (nekazaritza eremuei eta ondare historiko kulturalari egiten zaion kalteagatik), autopistak suposatuko lukeen diru galera (Leintz-Gatzagako proposamenaren arabera kilometro bakoitza 2.000 milioi baino gehiago kostatuko da) edo autopista lurraldearen ardatz banatzaile izugarria izatea (hiri haundiak biz-

korrago lotzen dira; herriak, berriz, bigarren planoan geratzen ei dira).

Esan bezala, gaiarekin interesatutako guztiek Kultur Etxera hurbiltzeko aukera izango dute datorren domekara arte. Erakustokia ohizko ordutegiarekin egongo da zabalik; astebarruan 6etatik 9etara eta larunbat eta domeketan, goizez, 12etatik ordu bietara eta, arratsaldez, 6etatik 8etara.

YAZKI
UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 beheka ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Lanpostu duinen alde

Azken egunetan Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan, Herrialdeko Hitzarmenak negoziatzen ari dira metaleko langileak, urtean zehar sektorean lan harremanen erdua ezarriko dutenak eta 140.000 langile biltzen dituen sektorea. Besteak beste, aldarrikapen hauek daude mahai gainean: lan orduen murrizketa, aparteko orduak desagertzeko neurriak, lanpostu duinak bermatuko dituen kontratazio eredu baten aldarrikapena eta lantegietan gazteak kontratatzekeo kopuru minimo baten ezarpena.

Baskongadetako mahai negoziatzaileak irekiak daudelarik, sindikatuen aldarrikapen hauekiko patronalaren erantzun bakarra ez-tza izan da. Hau dela eta, negoziazioak blokeatuak eta langileria bere eskubideen alde kalera irtetzeko prest ditugu, urtarrilaren 28an egin zuten moduan. Baina aldarrikapen hauek ezin ditugu sektore batean lan egiten duten langile-etara mugatu. Langabezia eta prekarietatea izanik egun euskal gazteon egoera baldintzatzuten duten arazorik larrienetakoak, argi dago aldarrikapen hauek lortzeak guregan aparteko eragina izango duela.

Patronalak onartu nahi ez dituen aldarrikapen hauek Euskal Herrian oinarritzeko den sektore batean lanpostu duinak sortzeko neurriak dira egun langabezia dauden milaka gazte eta ikastetxeetan dabilzan beste askoren etorkizunaz hitzegiten ari gara.

Euskal Herrian gazteriaren erdia langabezia murgildu gaituzte enplegua sortzeko aldarrikapenen aurrean etekinen ugaltzearen aldeko apostua egiten dutenek. Ezinezkoa dugu aldarrikapen hauek eta hitzarmen hauen negoziatioa langileen arazotzat soilik ulertu, euskal

gazteon etorkizunaz arduragabeki jokatzeko duen patronal bati erantzun behar zaio. Hau dela eta, langabezia itorri, inongo perspektibarik gabe ikasten dabilen edo prekarietatean murgildurik, esplotazioa zer den egunero bizi duten euskal gazteei Arrasaten egingo diren mobilizazioetara dei egiten diegu.

Langileriaren parte izan arren, lan merkatutik baztertu baigaituzte eta gazteok ere badugulako zer esanik. Langabezia eta prekarietateari aurre egin. Etorkizuna borrokatu!!

BERGARAKO LAB GAZTEAK

Datu zehatzak

Duela aste batzuk BKEren lehendakariak adierazi zuen Udaltetik jasotzen zituzten dirulaguntzak urriak zirela eta zenbaki batzuk aipatzen zituen. Behin betirako gaia argitzeko, hona hemen 1996. urtean, modu batean edo bestean, BKEk Udalarari lortu dizkion gastuak:

Dirutan emandako ohizko dirulaguntzak: Futbolerako, 2.449.872 pezeta; Eskubaloirako, 883.334; Saskibaloirako, 478.632, eta Pilotarako 208.824. Beraz, guztira: 4.020.662 pezeta.

Eskola kirolagatik (hauek ere dirutan emandako laguntzak): Futbolerako, 222.406 pezeta; Eskubaloirako, 94.424; Saskibaloirako, 80.376, eta Pilotarako: 58.680. Guztira: 455.886 pezeta.

Ipintza futbol zelaiko gastuak, berriz, honako hauek izan ziren iaz: argindarra, 441.394 pezeta; ura, 923.744, eta inbertsioak, konponketak eta abar, 388.934. Guztira: 1.754.072 pezeta. Bestalde, trofeoetarako eta Pilota sailari emandako dirulaguntza frontoiko alokairua ordaintzeko 106.000 pezetakoa izan da.

Hauek guztiak kontutan hartuta, 1996an Udalak Bergara Kirol Elkarteari emandako dirulaguntza 6.336.620 pezetakoa izan zen.

Goiko numeroetan ez dugu sartu Labegarieta kiroldegiko gasturik, ezinezkoa zaigulako momentuz zehaztea zenbat dagokion BKE-ri, ezta Zabalotegiko pilotalekuan edo Mariaren Lagundian sortzen diren gastuak, nahiz eta aipatutako instalazioetan Bergara Kirol Elkartearen hainbat talde eta jokalaritari astean zehar.

UDAL KIROL ZERBITZUA

Gose greban

Kaixo lagunok: jakingo duzuen bezala, gure senitarteko presoak gose greban daude eta urtarrilaren 25az geroztik baita Bergarako bi preso ere, Mikel Askasibar eta Iñaki Arenaza. Gainera, otsailaren 19tik aurrera Luis Etxeberria gehituko zaie. Denok dakigu zenbat gose greba eta bisita greba egin behar izaten dituzten presoek, euren giza eskubideak errespetatuak izan daitezten, nahiz eta askotan atzerazinezko ondorioak ekarri. Ez da hau motibo bakarra zuengana hurbildu gaituena. Esan baita ere, otsailaren 19an Iñaki Ibabe eta Joxe Maria Etxanizek 17 urte beteko dituztela Espainiako kartzelatan, eta 95etik etxean egon beharko luketela kondenaren 3/4ak beteta dazkutelako. Zergatik jarraitzen dute gartzelatan?


Bergarako Senideak-ek otsailaren 21ean arratsaldeko 7:30etan Bergaran egingo den ixileko manifestaziora gonbidatu nahi zaituzte. Agertuko zaretelakoan, agurtzen da.

BERGARAKO SENIDEAK

Tiira biraka

ALEX UGALDE

60 kanal



telemando bat



Jainkoak gara



Epaitegikoen enkartelada

Joan zen astean Errenteriako pake-epaitegietara jaurtitako molotov koktel baten ondorioz zaurituta gertatu zen Begoña Landari, Errenteriako epaitegietako langileari, elkartasuna adierazteko enkartelada egin zuten astelehen goizean Bergarako epaitegi aurrean bertako langileek. 30 bat lagun bildu ziren eta epaitegietan segurtasun neurriak hartzeko eskatu zuten.

Beasain-Durango korredoreari hainbat alegazio egin zaizkio

Beasain-Durango errepide berriaren proiektuari hainbat alegazio egin dizkio Bergarako Udalak. Erabakia Udalbatzak hartu zuen, aho batez, aurreko astean egindako Ple-noan.

Proiektuan jasotzen denez, Bergara eta Zumarraga arteko errepidea Eibar-Gasteiz autopistaren barruan kontenplazten den hegoaldeko saihesbidean hasiko litzateke. Udalak ez du hori logikoa ikusten, Beasain-Durango korredorea, autopista baino lehenago egingo baita. Horregatik, Zumarragatik datorren errepidea eta Arrasatera doanaren arteko loturarentzat tratamendu berezia eskatzen du Udalak: "Ekialdeko Saihesbidea" izena edukiko luke eta bere aurrekontu-izendapena eta exekuzio epea ere bai, Eibar-Gasteiz autopistaren proiektutik aparte.

Gainera, Udalarentzat ez da onargarria Beasain-Durango korredorea hobetzea Ormaiztegi-Bergara zatian, Bergara eta Arrasate arteko errepidearekiko lotura aurretik konpondu barik. Horrek trafikoaren gorakada ekarriko luke eta San Antonion, karretera oso estua dela kontutan izanik, ko-



Bergara eta Zumarraga arteko errepide berria 2002.era egingo da.

lapsatzea ere gerta liteke. Horrez gain, Bergarako Udalaren iritziz, proiektuan ez da argitzen Urteaga kaleko sarbidearen diseinua Zumarraga-Bergara errepidearen proiektuan ala Eibar-Gasteiz autopistarenean jasoko den.

Lau karril

Beasain-Durango korredoreak lau karril izango ditu Bergara eta Zumarraga arteko zatian eta Epelen izan ezik. Bergara eta Zumarraga arteko zatian, norabide bakoitzean galtzada bakarra egitea (7 metroko zabalerako kaminoa) aurrikusten da Errepideen Plan Orokorreran. Bergarako Udalak, ostera, norabide bako-

tzeko bi galtzada egitea proposatzen du, hau da, lau karriletako autobidea. Hau dena, beti ere, horretarako egingo diren trafikoko azterketek justifikatzen badute, eta nahikoa bitarteko ekonomiko egonez gero.

550 metroko tunela

Bergara eta Antzuola artean, gaur egungo errepidea berriztea aurrikusten da; Antzuolako bariantean separatu egingo litzateke berau eta Deskarga 550 metroko tunel baten bitartez zeharkatuko litzateke. Deskarga eta Zumarraga artean, ostera, gaur egungo errepidetik joango litzateke kamino berria.

HILDAKOAK

- Julita Unamuno Arbulu Otsailak 5.
- Gabina Fernandez Perez Otsailak 6, 82 urte.
- Felix Badiola Lete Otsailak 6, 72 urte.
- Daniel Almeida Mapellanes Otsailak 7, 63 urte.
- Angela Narbaiza Alkorta Otsailak 9, 75 urte.
- Antonia Martinez Lijo Otsailak 10, 75 urte.

JAIOTAKOAK

- Iker Larrañaga Burgaña Otsailak 3.
- Goizane Larrañaga Burgaña Otsailak 3.
- Mikel Larrañaga Burgaña Otsailak 3.
- Aritz Rubio Matilla Otsailak 4.
- Aitor Gorosabel Urretxu Otsailak 7.
- Mikel Vaz Catalana Otsailak 9.

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



Udaleko enpresa komitekoak presoen alde

Bergarako Udaleko enpresa komiteko langileek aste honetan ere presoen aldeko enkartelada egin dute Udaletxe aurrean. Joan zen asteko alean langileek plazan egindako enkarteladaren berri eman genizuen eta enkarteladarako deia eta bertan banatutako idazkia LABek bultzatuta egin zirela jakinarazten genuen. Informazioa ez zen guztiz zuzena, LABek ezezik ELAK ere apoiatu baitzituen bai enkartelada eta baita idazkia ere. Bergarako Udaleko enpresa komitean LAB eta ELA sindikatuak daude ordezkaturak. Jakingo duzuen moduan Mikel Askasibar eta Iñaki Arenaza gose greban aurkitzen dira urtarilaren 25az geroztik. Askasibarrek 8 bat kilo galdu ditu eta Arenazak 5 inguru. Datorren astelehenetik aurrera, berriz, Luis Etxeberria hasiko da gose greban. Presoen egoerarengatik protestatzeko Bergarako Senideak-ek ixileko manifes

Igerilekuak zabalik

Aste osoan zehar garbiketa lanak egiteko itxita egon ondoren, Udal Igerilekuetako goiko aldagelak, gimnasioak eta sauna zapatuan zabalduko dira. Urak behar duen tenperatura hartzen duenean, piszinak ere zabalduko dira.

Realarekin Valladolidera

Aranzabal Lagunarteak Realak otsailaren 23an Valladoliden jokatu duen partidura joateko autobusa antolatu du. Pucela aldera joan nahi duena Lagunarteko edozein kidekin jar daiteke harremanetan bidaiaren berri jakiteko.



Amillagako eta Osintxuko gasolindegia itxita izan dira egun hauetan.

Garraiolarien grebak arazoak sortu ditu lantegi askotan

Baita supermerkatu eta gasolindegietan ere

Garraiolariak joan zen ostegunean hasitako huelgaren ondorioak egunetik-egunera nabariagoak egin dira aste honetan. Errepideetan ez da kamioirik ikusten eta kotxea de-rrigorrez erabili behar dutenek hartzen dute bakarrik. Gasolina barik geratu dira Bergarako eta inguruko gasolindegia eta Bergarako Amillagako eta Osintxuko itxita egon dira asteazkenean eta ostegunean. Ostiral goizean berriz ere zabaltzeko esperantza zuten, ostegunean Bilbotik gasolina ekarri ondoren. Asteartean 15.000 litro inguru banatu zituzten Amillagakoan. Osintxukoan, berriz, berunik barekoa bakarrik banatu zuten asteazkenean.

Supermerkatuetan eta lantegietan ere arazoak izan dira. Bergara-

ko Eroski Consumen, esate baterako, esne barik geratu dira eta beste janari eta produktu asko falta dira. Herriko lantegi askotan ere arazoak izan dituzte, alde batetik lehengairik ez dutelako eta bestetik, fabrikatutakoa kanpora ateratzerik ez dutelako. Horixe da, esate baterako, MAYC-en kasua. Ostegunetik lan barik daude eta produkzioarekin zerikusia duten langileak ez dira lanera joango garraiolarien huelga konpontzen ez den bitartean. Tavesan eta Altos Hornosen oraingoz lanean jarraitzen dute.

Garraiolarien eskaera nagusiak, sektorearen reordenazioa eta erregaien prezioak merkatzea, azken urteetan gasoilak sekulako igoera izan duelako, dira.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02


BERGARA

ezpeleta
ostalaritza-ehunak

OSTALARITZA ETA EGOITZETARAKO MAHAI-ZAPI
ETA INDUSTRI-EHUNAK
SAN LORENZO, 1 TL. 76 17 09

Astelehenerako deitu dute deklaratzera Jose Luis Elkoro

Jose Luis Elkoro Herri Batasunako Mahai Nazionaleko kidea datorren astelehenerako, hilak 17, deitu dute Auzitegi Gorenera, ETaren bideoa emititzeagatik, deklaratzera joateko. Hasiera batean hilaren 11rako deia jaso zuen, baina gero deklaratzera joateko eguna aldatu eta 17rako deia jaso zuen. Bilboko epaitegiaren aginduak jarraituz, Ertzaintza Elkoro atxilotzera joan zen asteazkenean. Etxean eta lantegian ibili ziren bere bila, baina ez zegoen ez batean ezta bestean ere. Antza denez, gaizki ulerturen bat izan da Madrileko eta Bilboko epaitegien artean eta horregatik ibili dira Bergarako alkate izandakoaren atzetik. Mahai Nazionaleko beste kideek egin duten moduan, Jose Luis Elkoro ez da deklaratzera epailearen aurrera joango eta atxilotuta eramango dute Madrilerako Auzitegi Gorenera.



Bideo ikastaroa


Argiztapen ikastaroa antolatu du Islada bideogelak martxoaren 3tik 14ra bitartean, arratsaldean, astelehenetik ostiralera. Matrikulak 15.000 pezeta balio du eta izen-ematea Kultur Etxean egin ahal izango da.

Gazteak absolbituta

1993an Gaztetxea itxi zenean izan ziren istiluetan ustez alkatea iraintzeagatik epaitutako bi gazte bergararrak absolbitu egin zituen epaileak joan zen asteazkenean. Aurrekoan huts egin ondoren, oraingoan Victoriano Gallastegi alkatea juizioan egon zen. Bi gazteak barkatu egiten zituela eta bere momentuan jarritako salaketa erretiratu egiten zuela adierazi zien fiskalari eta epaileari. Fiskalak bi gazteentzako urtebeteko gartzela zigorra eta 100.000 pezetako isuna eskatzen zituen. Gaur egun hilda dagoen beste gazte bati hiru urteko gartzela zigorra jartzea eskatu zuen.

Mariaren Lagundia

Ikastola



Haur Hezkuntza (2-6 urte)
 Lehen Hezkuntza (6-12 urte)
 Derrigorrezko 2. Hezkuntza (12-16 urte)
 I.E.E. 2. maila
 L.H. II Sanitario adarra
 +
 Bestelako zerbitzuak
 Jangela
 Eguerdian haurtzaindegia
 Eskolaz kanpoko ekintzak
 Psikologia zerbitzua
 Etab.

*Haur Hezkuntzarako,
 Lehen Hezkuntzarako*

eta Derrigorrezko 2. Hezkuntzarako

aurrematrikulazio epea otsailaren 17tik 28ra irekita

Mariaren Lagundia Ikastola, Espaloia, 1. Tl. 76 25 40. Matrikula orduak, 9.30-13.00 eta 16:30-17:30



Lolium Perenne



Elvis & Company



*Irudimena
buruan
eta ibili
munduan*



Beautiful girls



Montreal '76 Barrenkalean



Tiritak ipintzeko egoki-egokixak



Piratak, bertsio zaharra eta modernotxua

Zaintzaileak

Herriko udaltzainen gora-beherak



Udaleko 14 udaltzainek bi errelebotan egiten dute lan.

Hamalau udaltzain dira Udaletxean, joan zen urtean baja bat izan ondoren. Udaltzainek bi errelebotan lan egiten dute lan, lehena goizeko 6etatik ordu bietara eta bigarrena ordu bietatik gaueko 10etara, errelebo bakoitzean sei agente eta kabo bat egoten direlarik.

Teorian behintzat, Udaltzaingoak eguneko 24 orduak bete beharko lituzke baina Alfonso Alonso udaltzainburuaren hitzetan hori ezinezkoa da gaur egungo medioekin; *"pertsonala eta dirua behar dira horretarako. Pertsonala ia bikoiztu egin beharko genuke 24 orduko zerbitzua eskeintzeko eta bapatean hori lortzea oso nekeza da. Poliki-poliki planteatu beharreko gauza da hori baina momentuz oso zaila ikusten dut lortzen"*.

Udaltzainen lana, esan bezala, goizeko 6etan hasten da. Udaletxea zabaldu ondoren, alarma sistema itzali eta edifizioaren azterketa egiten dute. Ondoren, kalean ere beste errebisio bat egiten da pintadarik edota bestelako nobedaderik ba ote dagoen konprobatzeko, azoka zabaltzen dute. 7:30ak aldera trafikoa arintzeko lanetan aritzen dira herriko hainbat tokitan (Burdinaten, Madinan edo San Antonion) eta ja-

rraian herriko ikasleei ikastetxetarako sarrera erretzen diete. Hortik aurrera, eguneroko lanak izaten dira nagusi: bi lagunez osatutako patruila bat auzoz auzo eta herri barruan bertan kotxez ibiltzen da eta gainerako udaltzainek obrak edo lur okupazioak kontrolatzeko tramiteak betetzen dituzte. Eguerdian berriz ere ikastetxeetako irteerak kontrolatu eta ordu bietan errelebo aldaketa egiten da. Arratsaldeko erreleboa, normalean, lasaiagoa izaten da udaltzainen iritziz: 3etan eta 5ak aldean ikastetxeetako trafiko kontrola, 4etan merkatua zabaldu eta hortik aurrera zainketa normala, prebentzio lanak nagusiki. Lanean ari diren agenteak irratiz komunikatzen dira denbora guztian.

la 30 urte udaltzain

Secundino Rodriguez dugu agenterik veteranoena. 59 urte ditu eta 29 urte daramatza udaltzain lanetan. 1965ean etorri zen Carballino-tik (Orense) Bergarara eta Errotai-zeko harrobian lanean egon ondoren, motorista sartu zen udaltzainetan. Secundinok aipatzen digunez, *"lehen 10 agente ginen eta hiru errelebotan lan egiten genuen, 24 orduz. Orain jende gehiago eta medio modernoagoak dauzkagu:*

Alfonso Alonso

Udaltzainburua

Ostegunean 12 urte bete zituen Alfonso Alonsok udaltzainburu lanetan. Jose Alonso bere osaba eta Fermin Jauregiren erreleboa hartu zuen Alonsok eta bere ustetan ordutik hona lan egoerak hobera egin du. Hala ere, badira oraindik ere gainditu beharreko hainbat arazo herrian.

Zuen lana hobeto egin ahal izateko zerbait botatzen duzu faltan?

Formazio aldetik prestakuntza hobea izan beharko genuke. Kanean ikasi dugu gure lana egiten eta askotan faltan botatzen duzu ikastaroak eta horrelakoak gauza berriak ikasi eta gure lana modu onenean egin ahal izateko. Baina, hiriburua kenduta, herri guztietako arazoa da hori.

"Ertzaintzak eta Udaltzaingoa, bakoitzak bere esparrua ondo mugatuta dauka"

Era berean, materiala (kotxe bakarra daukagu, atestatuak egiteko materiala, irriak etab.) eta iaz izan genuen baja bat betetzea komeni zaigula esango nuke.

Badirudi trafikoa dela arazorik nagusiena. Zenbat diru jaso zen iaz isunekin?

Multa gehienak gaizki aparkatzeagatik izaten dira bai, %99,9 esango nuke. Herrian 5.652 turismo ziren iaz eta 2.032 multa jarri ziren joan zen urtean. Denera, 700.000 pezeta jaso ziren. Kalerik konfliktiboenak erdialdekoak dira: Bideberri, Kruz Gallastegi, Masterreka, Frontoi aldea... Baina hainbat auzotan (Zubiaurre adibidez) antzera ibiltzen gara.



Zer egin trafikoaren arazoa konpontzeko?

Zaila da. Duela pare bat urte OTA jartzeko azterketa bat agindu zuen Udalak baina momentuz aukera hori baztertuta dago. Lur azpiko aparkalekuak egitea beste aukera bat izan liteke baina oraingoz ez dago ezer horren gainean ere. Auzo berrietan arazo hori konpontzeko bidea dago baina alde zaharrean... Filosofia alde zaharra peatonala izatera iristea da.

Poliziaren legeak udaltzainen funtzioa zalantzan jartzen duen?

Lege horrek Ertzaintza eta udaltzainak parekatzea jotzen zuen, Euskal Herriko polizia bi gorputzek osatzen zutela esanez. Ertzaina zegoen lekuetan udaltzainen plantilak murriztu egiten ziren eta, gauza berriak sortzen diren guztietan bezala, beldurra zegoen udaltzainen partetik. Baina orain bakoitzak bere esparrua ondo mugatuta duela esango nuke. Bergaran ere ez daukagu inolako arazorik. Ertzaina dagoenetik ere gauzak hobetu egin direla esango nuke. Gaur egun inguruko herriak lasaienetakoa da Bergara.

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Irizar, 2
☎ 76 14 95
JAUJA KIROLAK

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

pentsa, orduan ez geneukan kotxerik eta motorrez ibili beharra izaten genuen. Lan baldintzak asko hobetu dira, inoiz baino hobeto gaudela esango nuke". Secundinok lehen udaltzainetan zeuden zeldak ezagutu ditu; "kartzela oso egoera txarrean zegoenez, bi zelda jarri ziren hemen Udaltxean baina, atxilotuak, gehienez, 72 orduz egoten ziren hemen". Secundinok ez du aparteko arazorik izan lanean; "behin ijito batzuk sartu ziren gauzez Movillas lantegira eta bertako guardak hots egin zidan. Guardia Zibila ez zen agertu eta orduan nabiko beldur pasanuen, bost lagunei aurre egin behar izan nien eta... Baina ez, nabiko lan lasaia da hau. Inoiz ez dugu jendearekin arazorik izan, jendeak guggan konfiantza gehiago dauka".

Bi emakume

Jon Ander Arriolarekin batera, Angela Rodriguez udaltzainetako kaboa dugu. Orain 19 urte ez zuen inolako konplexurik izan ordurarte gizonezkoen lana zena eskuratzeko pausua eman zuenean. "Nire lagun bat udaltzaina zen Eibarren eta berak animatu ninduen. Lurdes Bastidarekin batera hasi nintzen Bergaran lanean eta, egia esateko, hasiera oso gogorra egin zitzaidan, fisiko aldetik esfortzu haundia eskatzen zuelako zortzi orduz kalean ibiltzeak. Baina lankideek eta herritarrek oso barrera ona egin zidaten, jendea ondo portatzen da hemen udaltzainekin. Anekdotan moduan, behin mozkor bat eraman behar izan

genuen Irizar kaletik eta mozkorrak zera esan zidan: 'Hori bakarrik falta! Hemen ere emakume batek agintzea, etxean bastante daukat eta...'"

Angelak euskaraz ikasi du Bergaran eta gehien gustatzen zaion lana eskoletan trafikoa zuzentzea da. Bera lanean hasi zenean ez zegoen bariantarik Bergaran eta orduan orain baino trafiko arazo gehiago izaten ziren herri erdian, Artekalen bereziki. Behin, Arrurriagan istripu larri bat izateko zorian egon zen Angela; "trailer bat gidatzen ari nintzen eta kabinari begira nengoela ia ia erre-

molkea gainera etorri zitzaidan".

Langabezian

Roman Zeziaga (32 urte) langabezian zegoen orain bost urte eta Udalak deitutako oposaketetan udaltzain plaza atera zuen. Bera da udaltzainetan denbora gutxien daramana. Gustora ari da lanean baina ez zaio batere gustatzen jendearekin eztabaidan jartzea; "trafiko arazoengatik etortzen dira arazo gehienak eta askotan baserreak sortzen dira baina tira, gauza normala da. Hobetu beharreko gauzak?

Material aldetik eta formazio aldetik behar bada". Laneko giroa oso ona dela eta Ertzainekin ez dela konpetentzia arazorik izaten ere aipatu digu Romanek; "berri barrukoa gure esku dago eta orden publikoa ertzainek daramate". Esperientzia txarren artean, berriz, behin herritar bat bere etxean hilda aurkitzea tokatu zitzaion Romani. Azkenik, Romanen ustez, urte guztian antzerako lana izaten da; "beharbada uda aldean lasaitasun gehiago nabaritzen da baina bestela, urte osoan berdintsu ibiltzen gara..."

“Egia esateko, hasiera oso gogorra egin zitzaidan, lanak fisiko aldetik esfortzu haundia eskatzen zuen” ANGELA RODRIGUEZ



Secundino Rodriguez ajenterik beteranoena dugu. Ia 30 urte daramatza Bergaran udaltzain.

BERGARAKO

OSASUN

gida

■ ALBAITARIAK:

- ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobila: 907 48 71 19
- ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)
- ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA)
- IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)
- NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47

Zurradero, 6 behea
Mobila: 908 77 17 32
Mobila: 908 77 17 32
Iribar baserria ANTZUOLA
Koldo Eleizalde, 28

☎ 76 70 67
☎ 76 43 29
☎ 76 43 29
☎ 76 63 46
☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA ISABEL

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN VICTOR

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL
- BERGARA HAGIN KLINIKA
- GOROSABEL J. ALBERTO
- IRIARTE IDOIA
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.

Iparragirre, 1 behea
Bidekurutzeta 6, 2
Fraiskozuri, 5 behea
Artekale 1, 1. C
S. Arrieta 3, 2. B

☎ 76 27 95
☎ 76 05 77
☎ 76 56 88
☎ 76 01 65
☎ 76 38 54

■ FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)

Masterreka, 7 4. C

☎ 76 43 71

■ GINEKOLOGOA:

- SERRANO DOKTOREA

Ramon María Lili, 2

☎ 76 59 39

■ MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL JOSE JABIER
- AZPEITIA IRUNE
- CASANELLAS JABIER
- MARTINEZ LUIS JABIER
- PAYROS AITZIBER

Boni Laskurain 1, 2. A
Agorrosingo igerilekuak
Boni Laskurain 5, 2. E
Masterreka 7, 3. A
Bidekurutzeta, 46 behea

☎ 76 15 74
☎ 76 20 51
☎ 76 03 78
☎ 76 51 18
☎ 76 52 62

■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- BENITO ISABEL

Bidekurutzeta 46, behea

☎ 76 52 62

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA JULIO
- OXIRONDO KONTSULTATEGIA

Boni Laskurain 3, 1. B
Boni Laskurain 2, behea

☎ 76 37 50
☎ 76 20 50

■ PEDAGOGOAK:

- IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)

Simon Arrieta 3, 2. E

☎ 76 26 42

■ PODOLOGOAK:

- ALTUBE EDURNE
- AZPIAZU ARANTZAZU

Simon Arrieta, 2
Herri Lagunak, z/g.

☎ 76 07 84
☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

- GALLASTEGI PABLO

San Martin Plaza 2, 1. ezkerria

☎ 76 26 64

■ PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)
- URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)
- ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)
- FERNANDEZ J.R.

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 14 80
☎ 76 53 13
☎ 76 30 76
☎ 76 59 39

■ REUMATOLOGIA:

- MORAGUES CARMEN

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

Jeloskorra zara?




Carlos Moreno

Bai, piskat bai, baina ez gehiegi. Neskaren zeloak izaten ditut batzuetan.



Felisa Gabilondo

Bai, apur bat bai, gizona guapoa daukat eta!! Bai, bai, zelosa naiz. Zelosa sentitzeko motiborik ez didate sekula eman, baina zeozer banaiz.



Bartolome Fernandez

Ez, ez dut sekula zelorik izan. Hala ere, uste dut ez dela txarra momenturen batean zeloak sentitzea.



Josefina Manzanal

Ez, ez naiz batere jeloskorra. Ez dut inoiz izan. Zeloak eduki nahi badituzu, beti aurkitu dezakezu motiboren bat.



Jabi Martinez

Ez. Zeloak edukitzeko motiboak izan ditut, baina ez naiz jeloskorra.



Ines Agirre

Ez, ez dut inoiz zelorik izan. Ez naiz jeloskorra, baina batzuetan piskat zelosoa izatea ez dago gaizki.

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

EMILIO PERNAUT
doktorea

traumatologia eta zirurgia ortopedikoa
Kontsulta: PAKEA. Amillaga, 8 Bergara ☎ 76 13 49

EGUNA ETA ORDUA ESKATU BEHAR DIRA.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK

MUJIKA GOZOTEGIA

Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34




Alfabetatugabe berriak

Teknologiaren aurrerapausoek desberdintasun berriak sortarazten dituzte maila guztietan, batez ere errenta per kapitaren arabera. Horrela, adibidez, badirudi behar beharrezkoa dela Internet sarera konektatuta egotea, edota deskodifikatzailez beteta izatea munduko azken izkiñako telebista zaborra ikusteko. Eta ez dezagun aipatu telefono mobilentzako, gizarte modernoak asmatu duen kate sendo eta ikusezina.

Gauza guzti hauek, makina kontsumitzaileak garenez gero, gure biziari erantzen dizkiogu, lasai asko. Baina hausnarketarako etenalditxo bat egiten badugu agian konaturatuko gara ez gaituztela zoriotsuago egiten. Aldiz, beharrezkoak ez diren gauzak oinarrizko bihurtzeak marketinaren arrakasta erakusten du, ez besterik. Merkatuak beharrak sortarazten ditu eta hiritarrok, ordaintzera, diru daukagunean noski.

Dena den, zutabe honen helburua beste bat da, hain zuzen, herrialde aberats eta pobreen arteko ezberdintasunak sakontzen ari direla esatea, informazioa dela medio. Hirugarren eta Laugarren munduko biztanleak sare ekonomikotik at gelditzen ari badira, gauza berbera gertatzen zaie informazio eta komunikazio sareekin. Informatikak alfabetatugabe berriak sortzen ditu. Mendebaldean, gero eta gutxiago, baina esparru honetatik kanpo, gehiengoak, beharrak beste batzuk eta benetakoak direlako.

Iñigo URRUTIA



Sahara eta atun latak


Gobernuz kanpoko erakundeek (ONG) hirugarren munduari zuzendutako laguntzak..., eta abar pil-pilean aurkitzen direnean Euskal Herrian elkartasun adibide berezi batekin topo egin dugu. Alegia, saharar herriari zuzendutako hegaluze edo atun bilketa.

Jakina denez, saharar herriari dagokion auzia aspaldi honetan bertan behera utzita egon den arazoa dugu. Azken boladan egoera politikoak ez du aldaketarik nabaritu. Herritarren egoerak, berriz, okerrera jo du. Saharar herria lehendik behartsua baldin bazen, aipaturiko egoera politikoak beharturik gero eta txiroagoa bilakatu da.

Basamortuan kokatutako kanpamenduetan elikadura lehen mailako helburua dugu. Errefuxiatuek hogeitau urte baino gehiago daramate arrain freskoa jan barik eta horregatik, arraina ordezkari dezaketan elikagaiak eskuratzea garrantzitsua da. Arrazoi honetan datza Euskal Herrian egiten ari den atun latak bilketa.

Kanpaina datorren astean amaituko da, horregatik ez ditugu emaitzak oraindik ezagutzen, baina baikorrak izatea espero.

Amaia ZABALETA



GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03



Miguel
Gimbert
Hernan

AROTZEGIA / EBANISTERIA

Zokalo, ate, tarima eta armairuen
kolokazioa eta
era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN,
Basabe Polig. A-2-5 T/F 79 15 71

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3



gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA

■ Lacor, odolostearen kofradea

Beasaineko Odoloste Kofradiak lau kofrade berri entronizatu zituen joan zen eguastenean, Santa Ageda egunean. Beasaingo San Martin de Loinaz plazan egindako ekitaldian, **BKL elkarteak**, **Amaia Andres** atleta beasaindarrak, **Marino Lejarretak** ordezkatu zuen

ONCE txirrindulari taldeak eta **Bergarako Lacor lantegiak** Beasaingo odolosteari, gertatzen den era

guztietan, errespetoa izango diotela zin egin zuten. Hori frogatzeko, odoloste zati bat dastatu zuten ekitaldiaren amaieran... Argazkian **Angel Macias** Lacor-eko ordezkaria beste kofradeekin batera.



■ Zaborraren astea

Joan zen asteen **Miguel Altuna** eta **Ipintza institutu**etako ikasleek, **Mendia Bizirik** eta **Oñatiko Natur Eskolaren** laguntzaz,

zaborrari eskainitako astea antolatu zuten.

DBHko ikasleek lau inguruetako zaborrak aztertu izan dituzte: baserria, industria, erreka eta, azkenik, kalea eta eskola ingurua.

Beharrezko datu bilketa egin ondoren, lanaren emaitzen berri eman zuten erakusketa baten bitartez eta, asteari amaiera emateko, astelehenean eskola inguruaren garbiketa egin zuten. Argazkian, egindako lanaren emaitza.



■ Pailazoekin barre batean

Takolo, **Pirritx** eta **Porrotx** pailazoek ikusle ugari bildu zituzten domekan Frontoian emandako ikuskizunean. Salgai jarritako sarrera guztiak (1.100 inguru) saldu ziren eta haur eta nagusiek primeran pasatu zuten pailazoaren gora-beherekin; Takolo, Pirritx eta Porrotxek sioux indioekin topo egin ondoren, egoera barregarri mordo bat kateatu zituzten haurren

gozamenerako.

Eskerrak pailazoek haurren laguntza izan zutela, bestela...



Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloi edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jarzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...



San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



■ **Bedelkarrek sari banaketa**

Bedelkar herriko dendarien elkarteak **Gabonetako zozketaren sari banaketa** egin zuen astelehenean. **Mari Tere Sanchezek**

eskuratu zuen lehen

saria (200.000 pezeta erosketa bonotan) 334.681 zenbakiko boletoari esker; bigarren eta hirugarren sariak, berriz, **Anabel Monje** (236.974 zenbakiaren jabea) eta **Arantza Urrutiarentzat** (97.665 zenbakia) izan ziren. Biek Bedelkarreko dendetan 100.000 pezeta gastatzeko bono bana jaso zuten. Argazkian, ezkerretik eskumara, Anabel Monje, Mari Tere Sanchez, **Luis Mari Retegi** Bedelkarreko ordezkaria eta Arantza Urrutiaren gizona.

Zertan dihardute ba?



Dani Laskurain 30

urteko bergarar margolariaren lan bat aukeratu dute Marbellako Museo del Grabado Español Contemporaneo delakoak deitutako IV. Sari Nazionalaren erakusketarako. Erakusketa Marbellako museoan izango da otsailaren 21era arte eta Daniren lana ikusi ahal izango da saritutako eta aukeratutako beste lanekin batera. Arte Ederretan lizentziatua, pozik dago lortutako emaitzarekin: *"lan asko aurkeztu dira eta lan bat aukeratua izateak ezagutzera emateko aukerak ematen dizkizu"*. Iaz ere, bere lan bat aukeratu zuten.

Mus txapelketa San Blasen

Zapatu arratsaldean, San Blaseko jaien barruan, mus txapelketa jokatu zen San Blasen. 22 bikote aritu ziren lehian eta



azkenean **Xabi Albisuak eta Jabi Juaristik** osatutako bikotea izan zen garaile. Irabazleek ohizko txapela, trofeoa eta 25.000 pezeta jaso zituzten. Bigarren saria (20.000 pezeta) **Alfonso Zafra eta Eriko Martinezentzat** izan zen eta, azkenik, **Jon Irizarrek eta Jose Jabier Agirrek** eramán zuten hirugarren saria (15.000 pezeta). Bestalde, domekan ere jende ugari hurbildu zen San Blasera, eguraldi ona aprobetxatuaz. Orain beste urtebete itxoin behar jaiez... eta San Blaseko tortez gozatzeko...

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILTZO
ILEAPAINDEGIA

ZUBIETA
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Jon Sanchez

Amodiozko Gutunen V. Berrigara lehiaketan, herriko onenaren saria jaso du hirugarren aldiz Jon Sanchezek (21 urte). Literaturaz gain, Jonek musika ere gustoko du, Musika Eskolako Orkestan oboea jotzen duelarik. Gaur egun Arrasateko Politeknikoan ari da ikasten.

- Amodiozko karta asko idazten dituzu?

- Ez.

- Eta bidali?

- Idatzitakoak. Pare bat edo...

- Bestelakorik idazten duzu?

- Bai, asko.

- Kartak ala postalak?

- Kartak, postalak ez ditut gustoko.

- Amodio kontutarako, kartaz ala aurrez aurre nahiago?

- Aurrez aurre nahiago baina errezago egiten zait kartaz.

- Idazleren baten zita onik gogoratzen duzu?

- Ez, segituan ahazten ditut.

- Eta entzun duzun horteradarik haundiena?


- "Nire bihotzeko azukre koskorra adibidez.

- Heroe erromantiko bat?

- Ez daukat heroerik.

- Ospatzen duzu San Balentin?

- Ospatzeko daukadanean. Orain



"Amodio kontutan nahiago dut aurrez aurre esan kartaz baino eta bestearengan gehien apreziatzen dudana momentu txarretan laguntasuna ematea da"

ez...

- Laguna konkistatzeko?

- Lehenbizi begietara begiratu eta ezer etorri behar bada, etorriko da.

- Neska bati egindako azken oparia?

- Pelutxe bat.

- Zelakoa da zure amodio ideala?

- Heldua eta maite nauela sentidu eragiten didana.

- Neska batengan zertan fijatzen zara?

- Gorputzean eta bere izaeran.

- Eta zer da gehien apreziatzen duzuna?

- Momentu txarretan zurekin egotea.

- Idazlea izatea gustatuko litzaizuke?

- Bai.

- Narratiba ala poesia?

- Irakurtzeko narratiba.

- Idazle bat?

- Bernardo Atxaga.

- Gomendatu liburu bat.

- *Gizona bere bakardadean* edo *El señor de los anillos*.

- Konpositore bat?

- Tchaikovski.

- Eta musika pieza bat?

- Jotzen dugunetarik filmeetako bandak eta *El lago de los cines*.

- Lo que necesitas es amor bezalako saiorik ikusten duzu?

- Ez.

- Gogoratzen duzu zure azken ametsa?

- Ez.

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Era guztietako igeltseritza lanak

Loidi Baserría ANGIOZAR

☎ 76 56 86

Isabel Benito eta Aitziber Payrosen kontsulta.

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

Loditasun orokorra eta lokalizatua

Zelulitisa • Aknea

Tinkotasun eza • Zimurrak • Etab.

Baita Masaje Terapeutikoa eta Drenaje Linfatikoa ere.

Isabel Benito eta Aitziber Payrosen kontsulta:

Bidekurutzeta, 46 behea

Txanda hartzeko deitu 11:00etatik 16:00etara 76 52 62 telefonora.

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Burdiñaten. 2,6 milioi. ☎ 76 31 79.

Txalet bat erosi edo alokairuan hartuko nuke Deba Garaian. ☎ 76 91 30.

Pisua salgai Frontoian. ☎ 76 24 42.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Pisua salgai Barrenkalean. ☎ 76 41 38.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 18 95.

Pisu amueblatua salgai Mugertza kalean, 3. zenbakian. ☎ 76 53 79.

Pisua salgai San Pedro kalean, lehen pisuan. Bulegorako egokia. ☎ 76 21 58.

Kontsultarako gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizaiden, Bolun. ☎ 76 58 91.

Pisu bat alokairuan hartuko nuke. ☎ (94) 684 00 26.

Pisua salgai Arrizurin. Garajea. ☎ 76 55 28.

Pisuak salgai Barrenkalean. ☎ 76 53 13.

Pisua salgai Soraluzen. 4 milioi. ☎ (94) 625 65 77.

DENETARIK

Ume-kotxea eta aulkia salgai. ☎ 76 40 56.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Donostian pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 46 03 98/76 25 59.

Nissan Vanette furgoneta salgai. Hiru urte, egoera onean. ☎ 76 58 94.

Donostian (Grosen) pisu bat osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 28 89.

Derbi FDS motorra saltzen dut. Egoera onean. ☎ 76 41 15 (Iñaki).

Ford Orion (25.000 Km) eta Lada Niva (55.000) kotxeak salgai. ☎ 76 39 93.

Taberna-erretgia traspasatzen da. ☎ 76 24 45.

Macintosh ordenagailu berria salgai. ☎ 76 50 59.

Telebista txikia salgai, 14 pulgada ☎ 908 67 09 10.

Irrati kontroleko abioia salgai. ☎ 76 51 94 (gauzez).

286 ordenagailua salgai, 40 mega. ☎ 76 58 81.

Vespa TX motorra (SS-AJ) salgai. ☎ 76 17 17.

Dalo oilagor-txakur txapeldunaren kumak salgai. ☎ 74 28 64.

Ford Orion kotxea (SS-AF) salgai. ☎ 76 32 91.

LANA

Aleman irakaslea behar da. ☎ 76 27 59.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 87 (Maribel).

Frantses klaseak. ☎ 76 27 16 (Estephanie).

Elosuko Elurmendi elkartean garbiketarako egiteko lagun bat behar da. ☎ 76 64 91.

Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 47 67 (Nere).

Mate, fisika, kimika eta diedriko klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Klinika auxiliarrak batek zaharrak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

Tituladun neska bat eskeintzen da edertze areto batean lan egiteko. ☎ 76 13 46.

Neska batek garbiketarako egingo lituzke (orduka). ☎ 76 27 68 (Pili).

Astean behin etxeko lanak egiteko andrea behar dut. ☎ 76 13 53 (Birjinia).

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 40 85 (goizez).

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

MUJIKA
Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

ZAPELAITZ
Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA



Gaur banatuko dira amodiozko gutunen lehiaketako sariak

Xabier Larrañagak, 26 urteko getxotarrak, irabazi du Amodiozko Gutunen V. Berrigara Lehiaketako lehen saria. Maialen Torrek, 18 urteko mugerretarrak (Lapurdi), eraman du bigarren saria. Bergarar onenaren saria, azkenik, Jon Sanchezentzat izan da. Irakurleek emandako saria, ostera, Joseba Sancho getxotarrarentzat izan da.

Gaur 19:30etan Zabalotegiko aretoan egingo da sari banaketa. Irabazleek, 75.000, 40.000 eta 25.000 pezetako sariak jasoko dituzte eta irakurlearen sariaren irabazleak, Xabier Diaz De Zeriok egindako eskultura bat. Sarituek euren kartak irakurriko dituzte eta horrez gain, Musika Eskolako soka boskoteak, Aitzol Mujika kantariak eta Oihulari Klownek ere hartuko dute parte ekitaldian.

194 karta

Jardunek antolatutako lehiaketara Euskal Herri osotik bidalitako 194 karta aurkeztu dira aurten. Gipuzkoatik 128 karta jasotako dira (Bergararik 27); Bizkaitik 45, Arabatik 12, Nafarroatik 8 eta Iparraldetik bakarra, hain zuzen ere bigarren saria jasotako duena eta Lapurdiko Mugerre herritik bidalitakoa.

Adinari dagokionez, eskutitz gehienak 14 eta 18 urte bitartekoak idatzitakoak dira (79); 19 eta 24 urte bitartekoak 57 karta idatzi dituzte, 25 eta 30 urte artekoak 31 gutun,



Lehenengo aldiz Gipuzkoatik kanpoko karta batek eraman du lehen saria. Argazkian iazko irabazleak.

31 eta 35 urte artekoen 13 karta jasotako dira eta 36tik 59 urte artekoen 8.

Emakume gehiago

Datuak eskuan, esan behar da lehiaketara aurkeztu direnen batezbesteko adina iazkoa baino altuagoa dela, joan zen urtean gaztetxoek idatzitako karta asko jasotakoak ziren.

Sexuari begiratzen badiegu, berriz, esan daiteke emakumezkoek gizonzkoek baino amodiozko karta gehiago idatzen dituztela: lehiaketara aurkeztu direnetatik, 110 emakumezkoek idatzitakoak izan dira eta 84 gizonzkoenak.

Kalitate hobea

Epai-mahaia Laura Mintegik, Arantzazu Loi-

dik, Gerardo Markuletak eta Miel Anjel Elustondok osatu dute aurten. Arantzazu Loidi iaz ere epai-mahaiko kide izan zen. Bere hitzetan, *"aurten lehiaketako eskutitzak iazkoak baino kalitate hobekoak izan dira. Orokorrean ondo idatzitako lanak izan dira. Bestalde, itxurazko karta asko egon direla somatzen da. Iazkoak, beharbada, dramatikokoak izan ziren"*.

Emakumezko batek gizonzkoari

Saria jasotako karta guztietan emakumezko batek gizonzko bati idatzen dio. Lehen saria jasotako Xabier Larrañagak idatzitakoa, *"Besteren nahiak bete nahan"* izenekoak, nazional 1 errepedeko klub batean lanean ari den prostituta batek,

Dominikar Errepublikako Santo Domingon dagoen bere nobioari idatzitako karta da. Epai-mahaiko gazi-gozoa, mina eta esperantza adierazten dituela eta erreala dela nabarmendu du.

Maialen Torrerren karta *"Egunon Pakito"* izenekoak, bederatzi urteko neskatila batek gaiso dagoen klaseko lagunari idatzen dion karta da. Freskotasuna, sinpletasuna eta oso transparentea dela nabarmendu ditu epai-mahaikoak.

Jon Sanchezek idatzitakoa, *"Zerura"* izenekoak, azkenik, alargun batek bere senarrari idatzitakoa da. Alargunak beste batekin maitemindu dela eta berekin dabilela kontatzen dio senarrari. Ironia handiz idatzitako karta eta suspentseari eusten diona da epai-mahaiaresanetan.


1	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	A ZE FLAXA ETXAGI	33	12	63	18
2.	ERROTAGAIN	29	12	54	22
3.	BAR CANALEJAS	26	12	41	29
4.	JAUJA OH ZEREZOS	24	12	43	33
5.	MONGATXURRA	13	12	33	42
6.	AZPEITXI JATETXEA	13	12	38	41
7.	OGIZUN	13	12	31	49
8.	ARLOTEAK/OILAGORRA	13	12	53	33
9.	BILDURBAREK OPEL/LAM	12	12	38	44
10.	ORTZI	12	12	26	41
11.	PAGOMENDI	12	12	29	44
12.	UFALA	8	12	31	41
13.	MADURA INDUSTRIAS GOI	4	12	22	39

2	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	ARTUSAMAK BERGATRANS	27	13	71	39
2.	ETXAGI	24	13	48	46
3.	KAYAK OS JARDINEIROS	23	13	51	34
4.	UVE BIKOITZA JAM	22	13	38	42
5.	SOROPOTROAK	20	12	50	24
6.	LA JUVE	20	13	52	34
7.	HALTZARI	19	12	40	29
8.	EZINLEIKE	19	13	39	51
9.	ERI	16	13	39	36
10.	AGIÑASPI	14	13	32	49
11.	AGIRREBEÑA JATETXEA	12	13	31	38
12.	INDARGORRI	10	12	15	26
13.	AUTOBEREZI	7	13	35	63

3	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	GUADALEST	33	13	42	21
2.	FAC	27	13	49	27
3.	PJS	26	13	34	28
4.	NEKROFIKOS	25	13	37	42
5.	NAHIKARI HOOLIGANS	24	13	51	42
6.	TXIPIRON	21	13	38	29
7.	JAKINA PATXARAN TEAM	16	13	46	36
8.	EH BITERRAK	14	13	35	45
9.	IGANDEKOAK	14	12	21	32
10.	MOSKIS	12	13	38	25
11.	CONSTRUCCIONES BERGARA	11	12	28	48
12.	MRW	10	13	28	49
13.	GANBARA	7	13	26	48

4	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MANITOU	39	13	95	16
2.	ARBE KIROLAK	34	13	75	29
3.	ETENGABE	25	13	39	28
4.	MATXAKATEGI	23	13	38	27
5.	OSINTXU	22	13	47	30
6.	SLO	22	13	49	50
7.	XURRUPAK	21	13	31	44
8.	KOMANDO PIPERRAK	16	13	46	59
9.	AMILOTX	13	13	25	45
10.	PANORAMIX	10	13	40	45
11.	PATA NEGRA	9	12	28	63
12.	POLIDEPORTIVO TABERNA	7	13	29	68
13.	ALDOKA MALDOKA	5	13	28	49
14.	PITIXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Joseba Pescador

PANORAMIX

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Nahiko ondo hasi ginen, baina azkenengo partiduetan gaizki gabiltza.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Txarena laister "pikatzen" garela eta onena, ez dakit, giro ona daukagula.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Goizez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Zaila da bat esatea, baina Mongatxurrak esango nuke.

JOKALARIK ONENA?

Nire taldeko Aitor Guerrero.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

8 eta 3 bi talderi sartu diogu: Etengabe eta Poli Taberna taldeei.

ETA JASOTAKOEA?

11 eta 2 Manitou taldeak sartutakoa.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Nire ustez, Bartzelona taldeko Luis Enrique.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Carl Lewis.

EUSKAL HERRIKOEA?

Abraham Olano.

JATEKO PLATER BAT?

Arroza.

EMAITZAK

AMILOTX-PANORAMIX	3-2
ARTUSAMAK-UVE BIKOITZA JAM	4-3
ETXAGI-EZINLEIKE	4-4
ERROTAGAIN-MONGATXURRA	3-0
LA JUVE-AUTOBEREZI	16-1
FAC-GANBARA	3-0
NEKROFIKOS-CONSTRUCCIONES BERGARA	1-2
MOSKIS-NAHIKARI HOOLIGANS	1-3
MRW-GUADALEST	0-2
TXIPIRON-PATXARAN TEAM	3-0
PJS-EH BITERRAK	5-3
KAYAK OS JARDINEIROS-ERI	2-3
AZPEITXI JATETXEA-PAGOMENDI	2-4
ARLOTEAK/OILAGORRA-MONGATXURRA	7-1
A ZE FLAXA ETXAGI-BAR CANALEJAS	3-4
ARTUSAMAK-AUTOBEREZI	18-2
AGIÑASPI-AGIRREBEÑA JATETXEA	3-1
ALDOKA MALDOKA-SLO	2-3
KOMANDO PIPERRAK-XURRUPAK	8-3
MANITOU-ETENGABE	5-1
OSINTXU-POLIDEPORTIVO TABERNA	1-10
ARBE KIROLAK-MATXAKATEGI	5-2

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: GANBARA-NEKROFILOS • FAC

10:00: FAC-IGANDEKOAK • BAR CANALEJAS

11:00: BAR CANALEJAS-PAGOMENDI • IGANDEKOAK

Zapatuan kanpoan

09:00: MOSKIS-PATXARAN TEAM • NAHIKARI HOOLIGANS

10:00: MRW-NAHIKARI HOOLIGANS • MATXAKATEGI

11:00: OSINTXU-MATXAKATEGI • MRW

Domekan barruan

09:30: INDARGORRI-HALTZARI • AUTOBEREZI

16:00: UFALA-ORTZI • BILDURBAREK OPEL/LAM

17:00: BILDURBAREK OPEL/LAM-MADURA • UFALA

18:00: ERROTAGAIN-ARLOTEAK • JAUJA OH ZEREZOS

19:00: AZPEITXI JATETXEA-OH ZEREZOS • MONGATXURRA

20:00: A ZE FLAXA ETXAGI-MONGATXURRA • AZPEITXI JAT.

Domekan kanpoan

10:30: AGIÑASPI-AUTOBEREZI • INDARGORRI

16:00: ERI-EZINLEIKE • LA JUVE

17:00: LA JUVE-UVE BIKOITZA JAM • GUADALEST

18:00: EH BITERRAK-GUADALEST • UVE BIKOITZA JAM

OHARRAK

ANTOLAKETA BATZORDEAK PATXARAN TEAM TALDEARI 3 PUNTU KENDU DIZKIO PARTIDUA JOKATZEARA EZ AGERTZEAGATIK ETA PARTIDUKO EMAITZA 3-0 IZAN DA TXIPIRONEN ALDE. HURRENGOAN TXAPALKETATIK KANPORATUA IZANGO DELA JAKINARAZI DU.

T XINPARTAK

Futbol partidu garrantzitsuak

BKEko 2. mailako erregional taldeak partidu erabakigarria jokatu du zapatuan Sorluzeren aurka. Iturberen mutilak eta soraluzearrak berdindurik daude 4. postuan eta garaipena lortzen duenak ia ziurtatuta dauka igotze fasean jokatzeko. Lehenengo fasea bukatzeko 2 partidu falta diru eta igotze faserako 4 talde sailkatuko dira. Bestalde, preferente mailako taldeak Aretxabaletaren kontra jokatu du igandean. Azkenengo ihardunaldian Ordiziaren aurka garaipena lortu arren, BKEkoek ez dute jeitsiera postuetatik irtetzea lortu. UDaren kontra aukera ona dute, azken partiduan etxean galdu egin baitzuten.

Nesken futbito txapelketa datorren asteburuan hasteko asmoa dute

Nesken futbito txapelketa berri bat antolatu du Lagunak Aretu Futbol Elkartek. Txapelketan parte hartuko duten taldeen bilera martitzenean arratsaldeko 7etan Errotalde Kultur Etxean izango da. Halere, izena emateko epea zabalik dago eta horretarako Naikari eta Oilagorra tabernetara jo beharko da.

Hor taldearen zerrenda lagatzeaz gain, delegatuaren telefono zenbakia ere eman beharko da. Txapelketa herriko neska guztientzat dago zabalik eta talde bakoitzeko 3 federatuk jokatu ahal izango dute gehienez; baina bi federatu besterik ezingo dira aritu batera jokatzeko.

Martitzenean bilera

Martitzeneko bileraren ondoren, txapelketa asteburuan hasteko asmoa dute Lagunak-ekoek. Joan zen urtean 7 taldek hartu zuten parte txapelketan eta irabazlea Power



Azkenengo txapelketaren finalean sailkatutako taldeak.

Rangers talde bergararra izan zen. Eibartik ere talde bat etorri zen jokatzera eta arrakasta handia lortu zuen txapelketak. Izan ere, 3 hilabetetan zehar 60 neska inguruk parte hartu baitzuten Lagunak-ekoek txapelketan.

Miguel Altunan

Txapelketa Miguel Altuna institutoan jokatu da eta apuntatuko diren

taldeen kopuruaren arabera antolatuko dute jokatzeko sistema. Ohikoa denez, txapelketaren finalak eta final laurdenak Labegarieta kiroldegian jokatu dira.

Antolatzaileek martitzeneko bileraren garrantzia azpimarratu dute eta talderen batek izena eman ez baldin badu, bileran apuntatzeko aukera izango duela gogoratzen dute.



Estatuko Igeriketa Txapelketan

Eneritz Muguruzak joan zen asteburuan Puerto de Santa Marian jokatu du Estatuko txapelketan 15. postua lortu zuen 100 m krol proban. Muguruza pozik agertu da esperientziarekin eta lortutako denborarekin. "Ostegunetik igandera izan ginen eta oso ondo pasatu genuen. Egindako denborarekin pozik nago, maila handia baitzegoen" esan digu. Asteburuan Bilbon jokatu diren Euskadiko txapelketetan parte hartuko du Bergara Igeri elkarteko beste kide batzuekin batera, 100 eta 50 m krol eta 50 m mariposa probetan. Argazkian, Eneritz bere entrenatzaile eta taldekideekin batera ageri da.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

- ◆ **Bergara-Aretxabaleta**
Preferente maila.
Domeka. 16:30 Ipintza.
- ◆ **Bergara-Soraluze**
2. mailako erregionala.
Zapatua. 16:30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Lagun Onak**
Ohorezko mailako kadeteak.
Domeka. 10:00. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Eibartarrak**
2. mailako kadeteak.
Domeka. 11:30. Ipintza.

ESKUBALOIA

- ◆ **Bergara-Usurbil**
Kadete neskak.
Zapatua. 17:45. Kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Gure Auzune**
Senior mutilak.
Zapatua. 19:00. Kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Hernani**
Jubenil neskak.
Domeka. 11:00. Kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Zarautz**
Jubenil mutilak.
Domeka. 12:30. Kiroldegia.

SASKIBALOIA

- ◆ **Bergara-Larramendi**
Senior mutilak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Uranzu Sports**
Senior neskak.
Zapatua. 16:15.
Mariaren Lagundia.
- ◆ **Bergara-Mary Ward**
Kadete neskak.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

ESKOLA KIROLA

- ◆ **Walter-MP**
Zapatua. 11:00.
Miguel Altuna Institutua.
- ◆ **Miguel Altuna-M. Lagundia**
Zapatua. 12:00
Miguel Altuna Institutua.
- ◆ **Ipintza Institutua-Los Txistis**
Zapatua. 13:00
Miguel Altuna Institutua.

Aroa Agirrezabala

Beti Bustiko kirolaria

Aroa Agirrezabalek 13 urte ditu eta 2 urte daramatza Beti-Busti elkartean piraguismoa egiten. Astero Agorringo kanpoko igerilekuan entrenatzen du eta noizean behin elkarrekin piraguan erreka jisteko aukera du.

- Zela hasi zinen piraguismoa egiten?

- Eskolan hainbat kirolean apuntatzeko aukera genuen eta ura asko gustatzen zaidanez piraguismoan sartzea erabaki nuen. Orain oso gustora nabil, nahiz eta hasieran beldur piska batekin hasi.

- Beldurra, zergatik?

- Ez dakit, lehenengo segurtasun falta somatzen da, baina konfidantza hartzen denean oso kirol polita da.

- Igerilekuan entrenatu eta asteburuetan nora joaten zarete?

- Normalean Bidasoa erreka joaten gara.

- Gogoratzen duzu piraguan ibili zinen lehenengo eguna?

- Igerilekuan izan zen. Bapatean hasi ginen eta piragua menperatzea asko kostatu zitzaidan. Igerilekuko paretan kontra behin baino gehiagotan jo nuen, baina gero errez menperatu nuen.

- Zer nahiago duzu erreketan edo urtegi-tan ibiltzea?

- Urtegian lasai ibiltzen zara, pasiatzen. Erreketan azkarrago eta hobeto ibiltzen da. Nahiago dut erreketan ibiltzea.

- Asteazken asko entrenatzen duzu?

- Astearte eta ostegunetan bi orduz ibiltzen gara igerilekuan, asteburuetan elkarteko kideekin erreketara joaten gara.

- Elkarteko neska bakarra izan da ondo konpontzen zara?

- Bai, ondo konpontzen naiz. Neska talde bat hasi ginen, baina guztiek laga egin zuten. Aurten beste neska bat hasi zen eta ez dakit non dagoen orain.

- Piragua zurea da?

- Ez, elkarrekin laga dit. Beti berdinean ibiltzen naiz eta nirea izango baltz bezela aritzen naiz.

- Lehiaketetan parte hartzen duzue?

- Iaz Bidasoan lasterketa lau batean parte hartu genuen. Datorren hila-betean erreka jistieretan parte hartzeko asmoa dugu beldurra kentzeko.

- Beste kirolik egiten al duzu?

- Ez, tenisa gustatzen zait, baina ez dut jokatze-ko aukerarik.

- Etxean piraguismoa egiteagatik zerbait esaten dizute?

- Amamak piraguismoa lagatzeko esaten dit.

- Elkarteko kirolaririk onena izendatu zintuzten.

- Esan zidatenean ez nuen sinestu eta ilusio handia egin zidan.



"Elkarteko neska bakarra izan arren, ondo konpontzen naiz".

“Urtegi-tan baino, erreketan ibiltzea nahiago dut”



Aranzadi ikastolako eskolaurreko ikasleak

Goiko argazkian agertzen diren neska-mutilak eskolaurrean ziren 1977-78 ikasturtean, Poligonoko Aranzadi ikastolan. Orduan lau urte zituzten eta, beraz, ikastolan hasi berriak ziren. Klaseko lehendabiziko egunean, ohitura den bezala, negar egingo zuten baina behin lagunak egin eta klaseen erritmora ohitu ondoren, gustora arituko ziren lagunartean... Ziur orain, argazkia ikustean, barre egingo dutela lagunekin garai haiek gogoratzean. Argazkia, esan bezala, 1978ko ekainean ateratakoa da. Oporren atarian, nola ez, guztiak pozik eta irripartsu... Hona hemen, beren izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Mikel Larrion, Mikel Zenitagoia, Iñigo Mujika, Xabier Garitano, Alberto Mendikute, Iñaki Lazaro eta Javi Sanchez.

Eserita: Kristina Romero, Patricia Perez, Arantzazu Garitano, Nerea De Pedro, Natalia Sevilla-no, Virginia Rubio, Nere Arenaza eta Eider Gonzalez.

Aurrean: Iban Gandiaga, Iban Chimeno, Iosu Aizpiri, Asier Larrañaga, Boni Olabarria, Kristina San Martin eta Unai Ostolaza.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



MODELO BERRIAK
Kalitate hobea preziorik onenean!!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



Ibargarai, 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 76 70 58



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

sofa
leku

centro
hogar
muebles



a, eme... interiores



Estilo
guztietako altzariak
aurkituko dituzu
gure dendetan.
Zatoz, eta zuk
aukeratu!!



grupo



Amuebladora
Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tfnoa: 79 15 03
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tfnoa: 77 14 92
sofa leku, Zigarrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tfnoa: 77 14 92